


Denbora-




2 Ezberdintasunak

Musikako irakasleak bi argazki atera dizkio bere saxofoiari. Bi irudiak berdinak direla dirudien arren, zazpi ezberdintasun daude. **Bilatu!**




1 Osatu marrazkia

Lierni armairuko kopak marrazten hasi da, baina marrazkiaren erdia egin gabe utzi du. **Amaituko al duzu zuk irudia?**



3 Sarraailak



Izarnek bizikletako giltzarrapoko bi giltza ditu. Hori kontuan izanik, multzo honetako zein giltzek zabaltzen dute giltzarrapoa?

-pasak


4 Antonimoekin jolasean

Anek ikaskide bakoitzari bi gozoki eman behar dizkio. Horretarako, gozoki antonimoak edo aurkakoak batu behar ditu. Lagunduko al diozu gozokiak sailkatzen?



Hitz ezkutua

Argibide nahasgarrienak emateko gaitasuna izatea arma baliotsua izan daiteke joko honetan.



- 1 Jokalari batek hitz bat aukeratzen du. Aukeratu duen hitza animalia, pertsona edo gauza den zehaztu behar die gainerako jolaskideei. Jokalariak aukeratu duen hitza, esaterako, dinosauroa izan daiteke.
- 2 Beste jokalariren lana aukeratu duen hitz hori asmatzea izango da. Horretarako, galderak egin beharko dizkiote hitza aukeratu duen jokalariari. Hark ahalik eta erantzun zeharkakoak ematen saiatuko da, baina ezin du, inolaz ere, gezurrik esan.
- 3 Aukeratu duen hitza asmatzeko galdera gehien erantzun behar izan dituen jokalariak irabaziko du partida.

5 Labirintoa

Ander bola jokoan jokatzera joan da arrebarekin. Bolak, ordea, bide arraroa jarraitu behar du birletara iristeko. Zein da bide egokia?



Erantzunak: 3.-3 eta 4.-4. Apurketa-konponketa, pirtzil-funtsezko, zintzo-maltzur, serioski-brometan, hizketaldi-isilaldi.